

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arantzazu Narbaiza Erdabide

*Bergara,
Gipuzkoa
(1950)*

Aurkibidea



Biografia



Zubieta kalean jaioa. Ama Usurbilgoa zuten, erizaina ikasketaz, eta aita Bergarakoa, Lasagabaster ehun lantegiko langilea. Arantzazuk Magisteritza ikasi zuen Donostian. Intxaurrendoko ikastolan hasi zen lanean, eta ondoren Bergarako Aranzadi ikastolan 1974tik erretiroa hartu artean. Ikastolako kontuak jasotzeko elkarrizketatu dugu, [Blanca](#) ahizparekin batera, biak izan baitziren irakasle bertan. Baita [Rosa](#) ahizpa ere.

Zintak

BER-351

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-03
- **Iraupena:** 106 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Etxean kantuan eta antzerkian

- **Erref:** BER-351/002
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:01:19. **Bukatu:** 00:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

Etxean beti abestu eta antzeztu da. Amaren ahizpekin antzezten eta aitaren arrebeekin euskal kanta zaharrak abesten.

2. Magisteritzako ikasketa zaharkituak

- **Erref:** BER-351/005
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:05:57. **Bukatu:** 00:08:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Arantzazuri, magisteritza gustatzen zitzaion. Magisteritzako eskolari eta irakasleei buruz hitz egiten du. Dena gaztelaniaz zen eta euskara eta berarekin lotutako guztia gaizki ikusia zegoen irakasleriaren artean.

3. Ikasketa guztiak gazteleraz

- **Erref:** BER-351/006
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:08:29. **Bukatu:** 00:10:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

Magisteritza bukatuta eta lanean hasi aurretik, Bergarako Don Serafinen-ekin euskaraz alfabetatu zen. Maria Lagundian, euskaraz hitz egiteagatik zigor gogorak jartzen zizkien moja bat gogoratzen du.

4. Batxilergoan, "Sección Femenina"-ko ikasgaia

- **Erref:** BER-351/007
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:10:28. **Bukatu:** 00:12:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Donostian batxilergoa ikasten, Politika izeneko irakasgai bat zeukaten eta "Sección Femenina"-ko emakume batek ematen zituen klaseak. Ikurrina bat margotzeagatik egun batzuez kaleratuak izan ziren baina gurasoek ez zioten inoiz erriatarik egin.

5. Intxaurrendoko Gure Nahia ikastola

- **Erref:** BER-351/009
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:15:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ikasketak bukatuta, Arantzazuk zalantzak izan zituen oposaketak egin eta hezkuntza publikoan sartu edo ikastolan lan egin. Intxaurrendoko Gure Nahia ikastolan lanean hasi zen. Etxeazpi batean zegoen ikastola eta Arantzazu

bertan emandako denboran, handitzen joan zen. Lan asko egin zuten gurasoek. Klandestinitatean nola lan egiten zuten azaltzen du.

6. Bere kabuz euskaraz alfabetatzen

- **Erref:** BER-351/010
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:15:09. **Bukatu:** 00:16:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Bergaran Don Serafinekin euskaraz nola alfabetatu ziren kontatzen du Arantzazuk. Zer ikasten zuten: aditzak, deklinabideak, idazkera...

7. Bergarako ikastolako lehenengo irakasleetako bat I

- **Erref:** BER-351/011
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:16:27. **Bukatu:** 00:18:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Garai hartan, euskaraz irakasteko gaitasuna zutenek erraztasun handia zuten ikastoletan lan egiteko. Arantzazu, 1973an hasi zen Bergarako ikastolan lanean. Ikastola nolakoa zen kontatzen du

8. Aranzadi Ikastolaren sorrera

- **Erref:** BER-351/012
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:21:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Begarako Aranzadi Ikastola nola sortu zen kontatzen du Arantzazuk. Euskaraz irakasten zuten bi eskola ezberdin elkartu eta Aranzadi Ikastola sortu zuten 1971an, "Colegio Santa Infancia" izen ofizialarekin. Dominikuen eskolan hasi zen ikastola martxan. Gaur egun, UNED-aren egoitza ere han dago.

9. Aranzadi Ikastola: irakasleak 1973an

- **Erref:** BER-351/013
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:21:08. **Bukatu:** 00:23:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Bergarako Ikastolan lanean hasi zenean berarekin batera zeuden beste irakasleak ekartzen ditu gogora: Izaskun, Pili, Karmentxu, Kontxita, Maria Victoria, Lide, Don Jose, Jazinto... Dominikoen errektore Fernando Etxeberria, ikastolako zuzendari izendatua izan zen. Mari Karmen Amasorrain eta Florita aipatzen ditu irakasleen artean baina, elkarriketaren ostean argitu digunez, bi horiek hurrengo urtean hasi ziren ikastolan lanean.

10. Aranzadi Ikastolako hasierak: material pedagogikoa

- **Erref:** BER-351/014
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:23:31. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Arantzazu ikastolan sartu zenean, 2.mailan irakasten hasi zen. Euskarazko materialik ez zegoen eta Fernando, ikastolako zuzendaria, Urretxura joaten zen hilabetean behin, euskarazko fitxekin. Hasieran ez zeukaten euskarazko libururik baina gero Saioka hasi zen argitaratzen. Xabiertxo liburua ez zegoen egokituta behar zutenerako.

11. Euskarazko alfabetatze ikastaroak irakasleentzat

- **Erref:** BER-351/015
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:27:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Irakasleak formatzeko ikastaro guztietara joaten ziren Arantzazu eta gainerako ikastolako irakasleak. Aste Santu batzuetan, Loiolara joan ziren euskarazko ikastaro batera. Iruñean ere egin dituzte ikastaroak, beti oporretan. Kantu eta dantzen bidez ikasten zuten.

12. "Han urrun etxe poxpola" kantua

- **Erref:** BER-351/020
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:33:14. **Bukatu:** 00:35:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

"Han urrun etxe poxpola" abestiaren zati bat kantatzen dute bien arten. Etxean ikasi zuten eta gero beraiek ikastolan ere irakatsi diete haur txikiei.

13. Euskara ziurtagiriak 1975 inguruan I

- **Erref:** BER-351/022
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:38:39. **Bukatu:** 00:41:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Poliki-poliki, irakasle guztiak euskarako ziurtagiriak ateratzen joan ziren. Ziurtagiri eta ikastaro ezberdinei buruz hitz egiten dute: D maila, B maila... Euskara irakasleak: Xabier Kintana, Xabier Mendiguren, Patxi Altuna, Jose Ramon Etxebarria...

14. Euskara ziurtagiriak eta ikastaroak

- **Erref:** BER-351/024
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:42:09. **Bukatu:** 00:44:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>B mailako euskara ziurtagiria ateratzeko, urtebetez ikastaroetara joan ziren. Irakasleak: Ibon Sarasola, Alfonso Irigoien, Jerardo Elortza, Txilardegi... Formakuntza oso garrantzitsua zen Ikastolan. Bartzelonara joan ziren Rosa Sensat i Vilaren ikastaroetara.</p>

15. Hezkuntzako ikuskatzailea ikastolan

- **Erref:** BER-351/026
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:46:42. **Bukatu:** 00:49:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Behin Bergarako ikastolara hezkuntza-ikuskatzailea joan zenekoa kontatzen du Arantzazuk. Ikuskatzailea joaten zenean, aldaketa batzuk egiten ziren ikastolan.

16. Bergarako Santa Infancia eta ikastolako irakasleak

- **Erref:** BER-351/027
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:49:27. **Bukatu:** 00:51:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Ikasturte bukaeran aktak betetzen zituzten "Santa Infancia"-ren izenean. Horrela deitzen zen ofizialki Bergarako ikastola. Don Jose Amelibia prokuradorea zen eta ikasgai batzuk ematen zituen azkenengo mailetan.

17. Kopiagailu baten desagertzea eta irakasleak kuartelean

- **Erref:** BER-351/028
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:51:50. **Bukatu:** 00:54:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Behin ikastolako kopiagailua desagertu zen eta egun batzuetara Elosun agertu zen. Zuzendaria eta irakasle batzuk kuartelera eraman zituzten, zerbait prestatzen ari ote ziren argitzeko. Garai zailak ziren.

18. Bergarako ikastola Triple A-aren mehatxupean

- **Erref:** BER-351/029
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:54:52. **Bukatu:** 00:56:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Begarako ikastolako irakasleak Triple A (Alianza Apostolica Anticomunista) eskuindar taldearen mehatxupean egon ziren. Beldurrez egon ziren eta guraso batzuek etxera laguntzen zieten.

19. Garai gogorak ikastolarentzat

- **Erref:** BER-351/030
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:56:38. **Bukatu:** 00:57:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Francoren heriotzaren ondorengo urteak gatazka handikoak izan ziren eta beldurrez egon ziren. Behin guardia zibila agertu zen ikastolan eta guraso batek Arantzazuren gelan zegoen ikurrinaren marrazki bat erauzi zuen haiek ez ikusteko eta arazorik ez sortzeko.

20. Francoren heriotza ospatzen

- **Erref:** BER-351/031
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:57:45. **Bukatu:** 01:00:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Francoren heriotzaz nola jakin zuten gogoratzen zuten. Dotore jantzi eta nahiz eta dolu-eguna izan, ikastolara joan ziren eta han, xanpainarekin ospatu zuten. Beldurrez, baina pozez.

21. Ikurrinaren legalizazioa; Francoren heriotzaren ostean beldurrik ez

- **Erref:** BER-351/032
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:00:21. **Bukatu:** 01:02:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>1977an, ikurrina legeztatu zen eta ikastolako haurrek, klasean egindako pankartak erakutsi zituzten herriko plazan. Francoren heriotzarekin gauza asko leuntzen joan ziren eta jende askok beldurragatik zuen maskara kendu zuela kontatzen du Blancak.</p>

22. "Tximist" Everesteko euskal espedizioa

- **Erref:** BER-351/033
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:02:26. **Bukatu:** 01:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

"Tximist" Everestera joan zen lehenengo euskal espedizioaz hitz egiten dute. Beraien lagun bat espedizioan joan zen. Ikastolan ere ospatu zuten.

23. Bergarako ikastolako irakasleak familia bat ziren

- **Erref:** BER-351/034
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:04:03. **Bukatu:** 01:06:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Oso giro polita zegoen Bergarako ikastolan irakasleen artean. Hilabetero, soldata kobratu eta gero, afaria egiten zuten denek. Familia bat bezala ziren. Xabier Azurmendi buruz hitz egiten du Arantzazuk,

24. Bergarako ikastolako jaialdiak

- **Erref:** BER-351/036
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 01:11:49. **Bukatu:** 01:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolarako diru-bilketak: zozketak, txosnak, jaialdiak, tabernak... Kontzertu handiak egiten zituzten. Slepý Labeef-ek kontzertua eman zuen eta bizkartzainak eskatu zituen. Arantzazu eta Blancaren senarrek egin zuten lan hori. Jaialdien aurretik, herriz-herri ibiltzen ziren kartelak ipintzen.

25. Bergarako ikastola: Haurren eguna

- **Erref:** BER-351/037
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 01:15:30. **Bukatu:** 01:19:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Begarako ikastolako Haurren Eguna, dantza eskola eta ikastolaren arteko elkarlanetik sortu zen. Nola sortu zen kontatzen dute. Fernando Lasa zen guztiaren arduraduna. Beste herrietatik Bergara dantzara joaten ziren hurrek, herriko etxeetan bazkaltzen zuten.

26. Moises Azpiazu dantza irakaslea

- **Erref:** BER-351/038
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 01:19:21. **Bukatu:** 01:20:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Moises Azpiazu haur eta helduen euskal dantzen irakaslea izan zen. Beste irakasle batzuk ere aipatzen dituzte.

27. Santa Eskea Bergarako ikastolatik

- **Erref:** BER-351/039
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:20:14. **Bukatu:** 01:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolakoak hasi ziren Santa Eskean eta inauterietan ateratzen. Ondoren, herriko beste elkarteetara zabaldu zen.

28. Telesforo Monzon bisitatzera

- **Erref:** BER-351/040
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:22:20. **Bukatu:** 01:25:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bergara "Promocion Cultural"-arekin harremanak izan zituen Bergarako ikastolak. Eskolaz kanpoko tailerrak antolatzen hasi zirela kontatzen du Blancak. Telesforo Monzonengana joan ziren behin.

29. Txomin Amasorrain Bergarako Ikastolan laguntzen

- **Erref:** BER-351/041
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:25:34. **Bukatu:** 01:26:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Txomin Amasorrain-i buruz hitz egiten dute. Ikastolan asko lagundu zuen, itzulpenak egiten, kantikak...

30. 1974an Hamabostaldi kulturala Bergaran

- **Erref:** BER-351/044
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:29:37. **Bukatu:** 01:31:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Xabier Azurmendirekin, Bergaran kultura bultzatzeko ekintzak egiten hasi ziren. 1974an, Hamabostaldi Kulturala izeneko ekimena antolatu zen. Dirua behar zutenez, enpresa guztietara idatzi zuten. Oteiza eta Basterretxearen ideia batzuk ere erabili zituzten. Jaialdiak, hitzaldiak, erakusketak... antolatu zituzten.

31. Jaialdiek zentsura pasatu behar zuten

- **Erref:** BER-351/045
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:31:51. **Bukatu:** 01:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Pi de la Serra, Mikel Laboa eta Artze Anaïen kontzertuak bertan behera utzi zituen guardia zibilak, jaialdiaren hasi baino piska bat lehenago. Jaialdiak antolatzen zirenean, zer abestuko zen bidali behar zitzaien zentsurakoei.

32. Euskarazko klaseak gurasoentzat Bergaran

- **Erref:** BER-351/047
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:33:34. **Bukatu:** 01:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

1975ean, Arrasateko CIME-ren ("Centro de Idiomas Modernos") bitartez, Bergarako Elementalean euskarazko klaseak eman zituzten Arantzazuk eta ikastolako beste irakasle batek. Ondoren, gau-eskolekin hasi ziren Bergarako ikastolan, baina ez ute gogoratzen nola sortu ziren, nahiz eta liskarrekin ibili ziren.

33. Bergarrako euskarazko gau-eskolak

- **Erref:** BER-351/049
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:35:47. **Bukatu:** 01:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskarazko gau-eskoletan gurasoei euskaraz irakasten zitzaien. Batzuei zerotik irakasten zitzaien baina beste batzuk alfabetatzera joaten ziren. Bai Blanca eta bai Arantzazu, irakasle lanetan ibili ziren. Arantzazu udaletxera joan zen behin gau-eskolentzat diru eske.

34. Bergarako gau-eskoletako irakasleak

- **Erref:** BER-351/050
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:38:34. **Bukatu:** 01:40:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>Gau-eskoletan 15 bat irakaslek lan egiten zuten. Bakoitzak bere lana zeukan eta gauetan joaten ziren hara. AEK eta HABE sortu zirenean, gau-eskolak bukatu egin zirela diote baina, elkarriketaren ostean esan digutenez, AEK sortuta zegoen ordurako: dirudienez AEK-k bultzatu zituen gau-eskolak, nahiz eta beraiek modu autonomoan kudeatu.</p>

35. Lehenengo testuliburuak euskaraz

- **Erref:** BER-351/052
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:40:41. **Bukatu:** 01:42:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Saioka liburuak izan ziren ikastoletan euskaraz erabili ziren lehenengo testuliburuak. Proiektuen bitartez lantzen ziren gaiak. Gaztelaniaz zeuden liburuak era moldatu eta itzultzen zituzten.

36. Haurreskolak Antzuolan, Elgetan, Osintxun...

- **Erref:** BER-351/053
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:42:43. **Bukatu:** 01:45:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Antzuolan hasieran haur-eskola bakarrik zegoen eta gero 1.maila egitera Bergarara joaten ziren. Elgetako haur-eskolari buruz ere hitz egiten dute. Pakita izeneko laguntzaile bat zegoen bertan. Osintxuko ikastolak hasieran Elgoibarkoarekin zeukan harreman gehiago baina gero Bergarara hurbildu ziren. Osintxuko ikastolako irakasleak: Karmele Gisasola, Jaione Isazelaia...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com